



# 17. Korrika, Ermua eta Mallabitik

# drogeteniturri

TOKIKOM

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 189. alea 2011ko apirila

# IZEN EMATE EPEA ZABALIK

Maiatzaren 2tik 13ra,  
0 eta 2 urte bitarteko umeentzat



Hurrengo izen emate epeak:

- Irailan: azaroan, abenduan, urtarrilean edo otsailean hasteko.
- Urtarrilean: martxoan, apirilean, maiatzean edo ekainean hasteko

**ERMUKO HAURRESKOLA**  
Iparragirre, 15 (Antzoki parean)  
943 17 64 31  
ermua.ermua@haurreskolak.net

Haurreskolak

www.haurreskolak.net

Bigarren Hezkuntzako  
Institutua

A eta D ereduak

AURREMATRIKULA

Batxillergoa:  
Maiatzaren 2tik 11ra

Zikloak  
Ekainaren 1etik 10era



EIBAR-ERMUA  
IES-BHI

Batxillergoa  
BATXILERGOA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA  
GIZA ZIENTZIAK ETA HUMANISTIKOA

Goiko Mailako Prestakuntza Zikloak  
GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK  
NAZIOARTEKO MERKATARITZA  
AKTIBITATE FISIKO ETA KIROL ANIMAZIOA  
SISTEMA INFORMATIKO ETA SAREEN ADMINISTRAZIOA  
PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA  
WEB APLIKAZIOEN GARAPENA

Erdi Mailako Prestakuntza Zikloak  
ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA  
MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREAK  
MERKATARITZA

Aratu Gabeko Heziketa  
ARATU GABEKO HEZIKETA

HEZIKETA JARRAITUA  
ZEREGINETAKO HEZIKETA  
EZKAITZA PARTZIALA

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50.  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIAK:**

Santos Vega.

**LAGUNTZAILEAK:**

Iruñe Martínez, Janire Daaira, Fede Iturriagagoitia, Kaltxango AEK Euskaltegia, Haritz Mayora, Patxi López eta Valentin Mugarza.

**ARGAZKIAK:**

Iván Mesonero, PMT, Maider Olalde, Valentin Mugarza, Ekaitz Arronategi, Janire Daaira, Estibalitz González, Andoni Aldape, Iruñe Martínez eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

688 63 28 76.

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Tamara Lorente, Nora Mateos eta Xabat Uzuriaga.

**TIRADA:**

2.200 ale.

**ISSN:**

11 33-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

## UR-ZOZOA *Mirlo acuático Cinclus cinclus*

Errekondo inguruetan beti, buzeatzeko aparteko abilezia du eta, gezurra badi-rudi ere, ur barruan oinaz ibiltzen da jatekuaren bila, lurlean bere apatxok ipini eta ur-korronteen astinduei aurre eginez, urgaineratu barik! Hain gustuko dituen zapaburu, arrain txiki eta zizareak urpean topatzen ditu eta habia ur-jauzi baten horma arrakalatu-ren baten ezkutuan egingo du. Ugaria ez da, baina daudenak Eitzagan presatik behera eta Mallabia eta Ermua arteko mendi errekatxoetan dabilta. Eme bila dabilenean bere papar zuria erakusten du harro-harro eta hegoak dardarti astindu; harroxko, baina urduri. Seduzitzeak han eta hemen bere zerak, lagunok!



## Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO .....4 Erkotalde	BOTEPRONTOAN .....16 Roberto Montoto 'Monti'
ELKARRIZKETA .....5-7 Pedal Metal Team	KIROLZALE .....17 Andoni Aldape eta Ermuko Duatloia
MALLABIAN ZER? .....8-9 Maider Olalde	IRITZIA .....18 Nuklearrik? Bueno, urrunekuek badiez...
ARMERIA ESKOLA...10-11 100 urteko ibilbidea	SALEROSKETAK .....19 Saldu, erosi edo agurtu
KORRIKA .....12-13 17. Korrikako argazkiak	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN .....14 Laguntzaileen txangoa	KALEKO INKESTA .....21 Ermuko eta Mallabiko jendearen iritzia
	AGENDA .....22 Maiatzeko agenda

### Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# Erkotalde, Ermuko kontsumo taldea

2010ean sortutako talde honek elikagai natural eta ekologikoak ditu ardatz. Astean 10 euro ordaindu eta gero, garaian garaiko barazki eta fruituekin osatutako otarra jasotzen dute martitzenero euren kideek.

**- Zein urtetan sortu zen taldea?**

Iaz sortu zen eta laster lehen urtebetetzea ospatuko dugu.

**- Zenbat kide zarete?**

Gaur egun 20 lagun pasatxok osatzen dugu taldea.

**- Zeintzuk dira zuen helburuak?**

Azkenaldian, gure elikadura ere industria-korporazio eta zientzi-korporazio handien mende dagoela ikusi genuen eta horren kontra egin nahi genuen batzuek. Beste batzuek, lurra modu ekologikoan eta gizatiarrean lantzen dituztenei eta natura eta bere zikoak errespetatzen dituztenei babesa emateko gogoia genuen. Gainontzekoek produktu naturalak eta osuntsuak jan nahi ditugulako gaude honetan. Gure helburua, beraz, kontsumitzaile eta ekoizlearen arteko harreman zuzena lortzea da, bioi bidezkoak iruditzen zaizkigun salneurriak finkatuz.



**- Nola egiten duzue lan?**

Guk aukeratutako baserri batek garaian garaiko barazki eta fruituekin, ogi txiki bana eta arrautzez osatutako otarrak bidaltzen dizkigu martitzenero. Taldeko kideok 10€ ordaindu behar ditugu astero otar hauek jasotzeko eta Eskilarapekon izaten ditugu eskuragarri.

**- Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?**

Hileko lehen martitzenean Eskilarapekon biltzen gara. Bertan, kideen inpresioak jaso zein hobetu beharreko gauzak lantzen ditugu, besteak beste.

**- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?**

Hainbat hiltzaldi antolatu ditugu eta baita sukaldaritzako ikastaroak. Ikasta-

rootan produktu naturalak era ezberdinetara prestatzen ikasi daiteke.

**- Txangoak egiten dituzue?**

Ez, baina produktu ekologikoak ematen dizkigun baserria bisitatzea joan ginen behin. Bisitaldi honi esker, baserrikoen lan egiteko duten modua ikusteko aukera izan genuen.

**- Zuekin harremanetan jartzeko?**

Hilero egiten ditugun bileratara hurbiltzea izango litzateke aproposena. Hala ere, 646 098 481 telefono zenbakian ere informazioa eskatu daiteke. Edornork parte har dezake eta taldea asko handitzen bada, beste baserri batekin egin beharko dugu hitzarmena baita ere.

Dorleta Vidal

**SAN ANTONIO** OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63  
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**GARAGARDOGEGIA** CERYECERIA  
NHECH

**ZYTik**

OTARTEKO eta  
IMPORTAZIOZKO  
GARAGARDOtan  
bereizitasuna

943 17 39 78



**Pedal Metal Team-eko kideak:**

## **“Bizikletarekin hegan egin genuelako hasi ginen honetan”**

Pedro, Txema, Mikel, Mikel, Oihane eta Unaik (edo Topo, Lombri, Bull, Celu, Oihane eta Unaik) Pedal Metal Team taldea osatzen dute. 23 eta 35 urte bitarteko gazte hauek ‘Down hill’ egiten dute, hau da, oztopoz beteriko mendi jaitsiera bizikletarekin. Taldea duela bospasei urte sortu zen, lagunartean, eta oraindik ere, batzuk ibili, besteak atoian eraman, batek erakutsi, besteak ikasi eta guztien artean zirkuituak prestatzen dituzte. Madrilan, Alacanten, Galizian, Alpeetan eta Andorran ibili izan dira euren mountain bike bereziekin eta, arriskuak arrisku (batzuk klabikula edo eskumutur biak apurtu dituzte), euren artean Bizkaiko txapeldunordea dago.

- Zer egiten duzue Pedal Metal Team taldeko kideek?

Bizikletekin jaisierak egiten ditugu mendian behera. Mountain bike-modalitate honek 'down hill' du izena eta Frantziatik dator.

- Zer dela eta hasi zineten honetan?

Lagun batek 'down hill' egiten zuen eta ikustera joan ginen behin. Ikusi eta berehala jakin genuen guk ere hegan egin nahi genuela bizikletarekin. Asko gustatu zitzaigun.

- Edozein bizikletarekin praktikatu daiteke?

Ez, mountain bike normalekin ezinezkoa litzateke guk egiten ditugun ibilbideak egitea. Bizikleta mota jakin bat erabili behar da, ibilbide luzeko esekiduraz sistema berezia duena, bai aurrean zein atzean ere. Sistema horrek harri eta oztopo handien kontrako talak absorbatu ditzake. Gainera, bizikletak plato bakarra du. Moto-krosetako motorra bezalakoa da, baina motor barik. Horrek ere asko erakarri gintuen hasieran eta bizikleta bana erosi genuen.

- Moto-krosarekin, beraz, harreman zuzena du?

Beno, pisu gutxiago izatean, bizikletarekin gauza gehiago egin daitezke: salto handiagoak, esaterako. Eta bihurtuneen peralteetan gorago igo daiteke.

**“Bizkarrean, ukondoetan eta belaunetan eramaten ditugu babesak, kaskoa eta betaurrekoak”**



- Zenbat balio du horrelako bizikleta batek?

2.500 eurotik gora. Hortik gora nahi duzuna gastatu dezakezu: koadroa bera da, baina osagarri hobeak ipintzen joan zaitezke.

- Mendian zehar, edozein bide da egokia 'down hill'-a praktikatzeko?

Aurretik prestatutako zirkuituetan ibiltzen gara. Horiek oztopoak izan behar dituzte, hala nola harriak eta zuhaitzen sustraiak; jauziak ere izan behar dituzte eta peraltea bihurtuneak, besteak beste. Elementu horiek dira gainera kirol hau dibertigarri egiten dutenak.

- Jaisi ondoren igotzea, berriz, ez da hain dibertigarria izango, ezta?

Ez, bizikleta hauekin ezin da igorarik egin eta pisu handia dutenez, oso nekekoa da eskuan eramatea. Horregatik, bizikletarekin joaten garenean furgoneta edo karroak eramane behar izaten ditugu. Bestela, jaisiera bat eta etxera joango ginategi! (barreak)

- Zuek zirkuitua duzue?

Bai, Ermuko inguruetan. Lursail pribatu batean dago, baina erabiltzeko baimena dugu. Beste leku batzuetan, Bilbon, esaterako, Udalak utzitako lursail batean hainbat zirkuitu dago. Guk ez daukagu inongo diru-laguntzarik eta behin baino gehiagotan pentsatu dugu talde moduan Udalean izena eman eta lur-sail bat eskatzea.

- Bizikletaz eta zirkuituaz gain, zer gehiago behar da?

Moto-krosetan erabiltzen diren babesak usatzen ditugu: bizkarrean, ukondoetan eta belaunetan. Kaskoa eta betaurrekoak ere ezinbestekoak dira.

Horiez gain, baikoitzak nahi duena eraman dezake. Hasieran, ikasten zaudenean, denetarik eramaten duzu, gero apurka-apurka gauzak kentzen zoaz. Txapelketetan parte hartzen dutenek, esaterako, oinarrikoena eramaten dute bakarrik, erosoago egoteko eta pisu gutxiago eramateko.

- Ohikoa da lesioak egotea?

Bai, hasierakoa ikaragarria da eta lesio gehienak klavikuletan, eskumuturretan eta atzamarretan izaten dira. Azkenaldian ez gara hainbestetan jausten eta esperientziarekin gainera, min ez hartzeko nola jausi behar den ere ikasten da.

- Ikasitakoa, zuen kabuz ikasi duzue?

Bai. Gainera, lagun taldea garenez, batzuk besteei laguntzen ibiltzen gara. Leku batzuetan irakasleak daude, baina guk gure kabuz egin dugu dena.

**Proba-Leku**  
Healpaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

**Pub SCORPIO**

Zubiaurre, 21  
ERMUA

komunitateak  
aseguratuak

**San Pelayo**

aholkularitza  
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

- Zer eskatzen du kirol honek?

Kontzentrazioa eta erre-flexuak. 3 minutuko laster-keta bukatutakoan, lur jota geratzen gara. Tentsioan zoz bide osoan.

- Zenbat denbora behar da, batez beste, zirkuitu bat egiteko?

3 eta 7 minutu artean, esprintean. Urkotik Santa Anara joateko, adibidez, 8 eta 10 minutu artean ematen dugu. Elorretatik anbulatortira, berriz, 4 minututan heltzen gara.



- Forman egotea ezinbestekoa da?

Bai, erresistentzia fisikoa lantzea ondo datorkigu, baina ez dugu ezer berezirik egiten. Batzuetan mountain bike arrunta hartu eta bueltatxoa egiten dugu.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Batik bat ondo pasatzea eta adrenalina askatzea.

- Lehiaketaren batean parte hartu duzue?

Euskadi eta Espainiako txapelketetan parte hartu izan dugu eta Topo Bizkaiko 2. postuan eta Euskadiko 4.ean geratu zen 2009an, gure kategorian ('Master 30'n). Halere, gure asmoa, lehen esan dugun moduan, ez da lehiaketetan parte



## "Urkotik Santa Anara joateko 8 minutu ematen dugu"

hartzea, baizik eta ondo pasatzea. Oso jende gutxi bizi da kirol honetatik eta gainera, nahiko bagenu ere, onak izateaz gain, gazteagoak izan beharko genuke.

- Kirol garestia da?

Hasieran bai, baina beharrezkoa den ekipoa duzunean ez da mantentze-lanetan gehiegi inbertitu behar. Garestiena leku batetik bestera mugitu behar izatea da.

- Zeinek praktika dezake?

Hasten zarenean oso erraza da min hartzea. Hala ere, ume edo gaztetxoek atoiari arazoa dute: pertsona heldu baten laguntza beharko lukete, bizikletak furgoneta edo karro batean mendira igotzeko.

- Jende asko dabil honetan?

Euskadin ibiltzen garen ia guztiok elkar ezagutzen dugula esan daiteke, orain arte ez delako jende asko ibili honetan. Azke-

naldian, berriz, igoera nabarmena egon da, mutil gazteen artean, batez ere.

- Hemendik kanpo praktikatzen da?

Frantzian oso arrunta da. Gu Alpeetara joan izan gara praktikatzen eta guraso eta seme-alabak ikusi izan ditugu honetan. Gu baino erritimo motelagoan, baina jaitsierak egiten dituzte.

- Gorakada horren adierazle eski-estazioetan udan egiten dituzten pistak dira, ezta?

Bai, gaur egun, teleaulkiei udan ere etekina ateratzeko, 'bike park'-ak egiten hasi dira hainbat eski-estazioetan. Bike park-ak bizikletekin ibiltzeko prestatutako pistak dira eta normalean, elementu artifizialekin egindako ozto-paok izaten dituzte.

- Nondik dator Pedal Metal Team?

Denok dauzkagu bizikleten pedalen markak zango-bizkarrean eta hori, guztiok gustatzen zaigun 'metal' musikari batuta, Pedal Metal Team izena eman zigun.

Dorleta Vidal



# IMH

## Elgoibar



### Heziketa Zikloak





**Ate irekiak:** Maiatzak **11**, 18:00etan  
Maiatzak **28**, 11:00etan

**Etortzeko deitu 943 74 41 32ra edo apuntatu zaitez [www.imh.es](http://www.imh.es) orrian**  
IMH, Azkue auzoa - 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)



# Descubre-té

- **Teak eta kafeak**  
Jatorrizkoak eta aromatizatuak. Soltean.
- **Belgiako txokolata**
- **Osagarriak:**  
teontziak, katiluak, kutxak, infusoreak, zapozeko azukreak, infusio medizinalak...
- **Eguneko tea dastagarri dugu.**
- **Oparitzeko neurria egindako poltsak.**

Probaleku 4 bis, behea - Ermua  
943 03 15 81 / [descubre-te@hotmail.com](mailto:descubre-te@hotmail.com)

**Maidar Olalde, mallabitarra Parisen:**

# “Hamen lan aukera zabala dau”

**U**rte eta erdi inguru daroa Maidar Olalde mallabitarra Parisen bizitzen. Beka batekin juen zan bertara telekomunikazio ingeniari-tza amaitzera. Karrera amaierako proiektue Alcatel-Lucent-en ein eta gero, oin bertako enpresa batean ari da lanien.

**- Zertan datza zure lana?**

Nire biherria momentu honetan, Japonen deukeguzen kiente batzuekin lan eittie da: euren biherizenak aztertu eta euren arazuei soluziniek emotien datza. Telefonia mugikor alorrien lan eitten dogu gehixen bat, telefonuek garatu eta balioztatzen.

**- Zer eitten dozu zure egunerokotasunien?**

Egunerokuen ez dot beste munduko gauzarik eitten... Biherretik urten eta gero, eguraldi ona bada, paseon bat, erosketak, garbiketie... Hori bai, beti topatzen dot nire ‘hobby’-rako denporie: koruen kantatzie! Momentu honetan koro bitten kantatzen dot: bata Parisko hiri unibersitarioko koruen eta bestie Parisko Euskal etxeko koruen.

**- Nolakue da Parisko bizitza?**

Mallabi moduko herri txiki batetik etorritte badauz diferentzia batzuk, baine az-

ken baten Parisko bizitza ezta edozein hiri handitakuen oso desberdine. Bertako jentie, leku danetan pasatzen dan moduen, era guztixetakue da. Baina diferentziaren bat topatzekotan turista pilo bat dauela da, eta munduko leku danetatik etorrittekuek.

**- Zer da gehien gustatzen jatzuna bertatik?**


Paristik gehixen gustatzen jatan gauzetako bat da, beti dauela zoyer eitteko. Nik Paris bi dauezela esango neuke, negukue eta udakue. Neguen pentsau ezineko hotza eitten dau eta kalien egotie askotan ixie ezinezkue da. Udan ostera, beste gauza bat da: bero eitten dau, pasiuen eitteko mile leku dauz; eta neguen disfrutau ezineko gauzak ein zeinkez.

**- Faltan botatzen al dozu Mallabi?**

Beti botatzen da faltan norberan jaioterrixe, batez be Mallabiko trankilidadie.

**- Zenbatero etortzen zara? Eta etortzen zarenien zer eitten dozu?**

Hemen oporrak edo jai egun batzuk deukadazen bakotxien etxera etortzen ahalegintzen naz. Normalien, nahi baino gauza gitxiau eitteko astixe eukitten dot, baine bueno; familixie bisitau, lagunekin afaritxon bat... beste munduko gauzarik ez. Inoz lagun frantzesen bat edo etorri da eta orduen



ba hemengo inguruek bisitatzien ibili naz neu be, turista baten antzera.

**- Aurrera begire, itzultzeko asmorik bai?**

Momentuz hemen geratze-ko asmue deket. Lan baldintzak, horkuekin konparaez, askoz be hobiek die eta lan aukera zabala dau. Gerora

ikusiko ia zelan dauen hor biherria topatzie, ze momentu honetan dioxosozko krisixe dala-eta, ezta giro! Baine ezin esan. Gustauko jatan egunen baten horra bueltatzie. Momentuz Parisen geratzen naz... à bientôt!

Ibaia Azagirre  
eta Igone Amesti

**Pub Dakota**



Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

O eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

**mimitos**

Zapatak, pijamak,  
lentzeria, aulkiak,  
sehaskak, tronak...  
behar duten guztia!

Eta gainera 'Hello Kitty'-ren  
artikulu mordoa!

Probaleku 4, Ermua · ☎ 943 033 830



### AITXIXOKO MARIXELEN JAIXEK

**Apirilak 29:**

- 20.00etan, txopo jasotzie, kanpai irakotzie eta txapligu jaurtiketie.  
- 22.00etan, bertso afarixe Goizeder jate-txien. Bertsolarixek: Eneko Abasolo, 'Abarkaz' eta Julen Sololuze. Gai jartzailie: Peio Mugarza.

**Apirilak 30:**

- 17.30xetan, asto probak: Satxibar (Etxebarria) - Urkiaga (Eibar) - Goizeder jatetxea (Mallabia)

**Maiatzak 1:**

- 11.00etan mezie. Saldie eta txorizo pin-txue debalde.  
- 12.00etan, txarri harrapatzie (irabazliandako txarrixe).  
- Herri kirolak: Txinga erute (3 sari) eta txakoro batzie (3 sari).  
- Mallabiko trikitilari-xek girue alaitzen izengo die.  
- 17.30etan, asto probak: Vitorio Celaya (Eibar), Mayora (Maume), Miguel Angel Mendibe (Bolibar).

### MALLABIKO PLAN OROKORRA 2011-2021

Mallabiko Udalak apirilean hainbat batzar informatibo egin zituen, duela bi urte inguru hasitako Hirigintzako Plan Orokorren aurrerapena aurkezteko. Apirileko astelehen eta asteazkenetan kultur etxean panelen bitartez erakusketak jartzeaz gain, Plan Orokorren ahalik eta zabalkunde handiena emateko, bi igandetan erakusketa plazara atera zuen.

Mallabiko Udalak martxan jarri duen prozesu parte-hartzaile honen bitartez, mallabitarrek datozen urteetan nahi duten herri eredia eta egin beharrekoak definituko dituzte. Plan orokor horretan, hainbat atal jorratuko dituzte. Besteak beste, azpiegitura eta zerbitzuak, hornikuntza, ondare historiko eta kulturala, etxegintza, mugikortasuna, arlo ekonomiko-soziala eta ingurumen arloa.

Behin informazioa jasota, herritarrek apirila eta maiatza bitarteko epea izango dute iradokizunak eta alegazioak egiteko. Horren inguruko informazio gehiago nahi izanez gero, gerturatu udaletxera edo bisitatu martxan jarri duten [www.mallabiadenonartean.org](http://www.mallabiadenonartean.org) webgunea.

### OINARRIZKO EUSKAL DANTZA IKASTAROA

Izar Gorri Kultur Elkarrekin dantza ikastaroa antolatu du. Ikastaroa maiatzaren 2an hasiko da eta bi hileko iraupena izango du (guztira 14 ordu). Fandangoa, arin-arina, bana-koa, zazpi jauziak, Lantzeko inauteriak eta polkapik dantza ikasteko aukera du interesa duenak. Herriko Tabernan apirilaren 29ra arte izena emateko aukera dago eta prezioa 10€koa da.

### GUEÑES ITSASO GOI TENTSIOKO ARGI-INDAR SAREA

Areitiotik pasatzea nahi duten Gueñes-Itsaso goi tentsioko sare elektrikoaren inguruko bilera informatiboa eta hitzaldia antolatu zituen Mallabiko Udalak martxoan. Era berean, sare elektriko hori geldiarazteko egin beharreko lehen pausua emateko, Udalak eskuragarri jarri zuen alegazio eredu bat herritarrek datu pertsonalekin bete, sinatu eta udaletxean bertan aurkezteko. Nahiz eta alegazioak aurkezteko epea laburra izan (martxoak 23-25), herrian guztira 1.010 alegazio jaso ziren.

### BERANO TXIKIKO SAN JURKIKO JAIXEK

**Apirilak 23:**

- Santuai kontuak esan eta jantzi.  
- Txopue altxatzie.  
- Auzunakuendako afarixe.

**Apirilak 24:**

- 11.00etan, mezie.  
- Jarraixen, herri kirolak: Zelai eta Bihurriren taldie aizkoran eta txingetan.  
- Ostien, oilar harrapatzie eta txapel jaurtiketie.  
- Saldie ta txorixue duen.  
- 17.00etan, umientzako jolasak: saku karrerie eta lapiko apurtzie (parte-hartzaile guztixentzat sarixe).  
- Mus txapelketie (apuntatzeko, bikoteko 10€). Sarixe: birentzako afarixe edo 100€).  
- 19.30ean, bertsolarixek: Julen Sololuze, Aitor Arrizubieta 'Toko', Lander Ibarluzea 'Atxulua', Gorka Lazkano eta Joseba Hartza.

### MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€), menua, plater konbinatuak, bokatak, pintxoak, kazolak...

\* Bazkari eta afariak parrillan (enkarguz): txuletak, arraina...

Enkarguak:  
**943 174 952**  
(asteartetan itxita)



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOAK**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

### Cable Spot



25 urteko esperientzia dugu  
antena kolektiboak eta atezain  
automatikoak instalatzen.

Zure antena TDTrA egokitu.  
**ETEN ANALOGIKOA**  
**GERTU DAGO!**



**EUSKALTELEN BANATZAILEA**

Telefonia mugikorra, zuntz-optikoa,  
banda zabala, kable telebista...

euskaltel

**ERMUA. San Pelayo 4 behea. 943 172314**

Jose Luis Novoa, Armeria Eskolako zuzendaria:

## “Hasierako baloreak berreskuratu behar ditugu”

**IOSU YARZA**

(Ermua, ikasle ohia):



*“Kalitate kontrola ikasi nuen eta 4 urte egon nintzen bertan. Oroitzapen oso onak ditut, ia dena baliozkotuta nuen eta oso ondo bizi nintzen. Batzuetan ordu gutxi, beste batzuetan berriz, 5 ordu tailerreko klasean egon behar izaten nuen eta horrek ziren txarrenak. Askotan Ipuruako taberna batean ematen genituen ordu libreak. Irakasle gehienak ziren bereziak. Bakoitza bere modura, baina nahiko frikiak. Bakoitzak bazuen hitz egiteko era berezia. Adibidez batek ‘pájaro’ hitza asko erabiltzen zuen: tengo una reunión con un pájaro y luego van a venir unos pájaros con corbata. Barre behintzat egiten genuen”*

**PEDRO BILDOSOLA**

(Ermua, Irakasle ohia):

*“Ni 1961ean hasi nintzen irakasle moduan eta 38 urte eman ostean, duela 13 urte jubilatu nintzen. Tailerreko maisu bezala egin nituen lehen urteak eta 1976an, teoria irakasteko plaza lortu nuen. Azken 12 urteak automatismoak irakasten jardun nuen, pneumatika eta hidraulikako kontuekin. Ikasleak hasierako urteetan Durango, Soraluze, Ermua, Bergara, Elgeta eta herri askotakoak ziren. Armeria Eskolaren ezaugarri nagusienak garbitasuna, diziplina eta ordena ziren baina pixkanaka aldatzen joan ziren. Jose Ormaetxearen lana ere goraiatu nahi dut. Makinaria berria ekartzeaz gain, espezialitate berrietan trebatzeko izan zuen ikuspegi eta grinagatik.”*



**5** 3 urte ditu. Allariz (Orense) albo-ko herri txiki batean jaioa. 5 urte zituela Ermura etorri eta geroztik bertan bizi da. Duela 5 urte, Armeria Eskolako zuzendari kargua hartu zuen. 2012an beteko ditu 100 urte gure eskualdean hain garrantzitsu izan den eta izaten segitzen duen Eibarko Armeria Eskolak. Urteetan zehar eskolak izandako bilakaera aztertu dugu berarekin.

**- Datorren urtean betetzen ditu 100 urte Armeria Eskolak...**

Armeria Eskola berez 1912an sortu zen nahiz eta 1913ko errege egunez hasi lehen ikasturtea. Urte osoko egitaraua ari gara prestatzen. Hilero izango da ekitaldiren bat: mahai inguruak, erakusketak, jaialdiak... kutsu herrikoia duen ospakizun bat izatea nahi genuke. Urteetako argazki bilduma sozializatu, erakusketa bat egin.

**- Zer izan da Armeria Eskola Ermuko eta Mallabitarrentzako?**

Balore asko sortu duen lekua izan da. Bertatik pasa den jende askok, bertako egonaldia bere bizitzako proiektua garatzeko eta aberastasuna sortzeko baliatu ditu. Gure heziketaren zati handi bat suposatu du. Eibarko enpresa asko eredugarri izan dira munduan.

**- Zu ere bertan ikasia zara...**

12 urterekin ez nuen batxilerra ikasteko aukerarik izan nire gurasoak ez zutelako dirurik. Aitak galdetu zidan: “Ikasi edo lana egin nahi duzu?” eta nik ikastea erabaki nuen. Garai hartan, Ermuko anbulatorio ondoan Hastapen Eskola zegoen eta han eman nuen izena. Han ikasi eta gero joan nintzen Armeria Eskolara.

**- Ikasle ona zinen?**

Bai, betidanik ikasle ona izan naiz. Armeria Eskola amaitu eta lanpostu bat eskaini zidaten baina bertan gelditu nintzen, laguntzaile gisa hasieran.

**- Nolako zen ikasle garai hura?**



Trantsizio garaia zen. Lehen ikasle greba egitea ere tokatu zitzaigun. 2 greba handi egin ziren eta 1976an Armeria Eskola itxi egin zuten. Azterketak egiteko soilik irekitzen zuten eta Eibarko elizetan barrena ikasgaiak elkarri irakasten eman genuen bolada bat. Irakasle izateko sena han piztu zitzaidan.

**- Ondoren maisu ere izan zinen...**

1978an oposaketak egin eta elektrizitate irakasle postua lortu nuen.

**- Nolako izan da zuzendari izendatu bitarteko ibilbidea?**

1984an, orduko idazkariak postua utzi zuen eta 25 urte eskas nituela, idazkari postua eskaini eta zuzendaritzan sartu nintzen. 20 urtez idazkari lanak burutu nituen eta ondoren, utzi eta formazio arduradun izatera pasa nintzen. 2 urte lan horretan egon ostean, Jose Antonio Arkotxak zuzendari postua utzi zuen eta niri eskaini zidatenez, horrela hasi nin-

**SAGARDUI**  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

**Infreñu**  
Taberna

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
www.infretaberna.com

**OSASUNA ETA EDERTASUNA**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA

*Marfil*

**FISIOTERAPIA**

943 17 28 09  
Goienkale, 12 - behea

tzen. Armeria Eskolak izan duen hamargarren zuzendaria naiz. 2013ra arte bai behintzat.

**- Zenbat ikasle pasa dira eskolatik?**

15.000 inguru. Ikasle gehien izan genuen urtea 1992ko ikasturtea izan zen. 1.400 ikasle inguru eta 100 irakasle izango ginen. Gaur egun 62 irakasle gara eta beste 10 lagun administrazio lanetan ari dira.

**- Lehen emakumeak zein urtetan hasi ziren?**

Ni sartu nintzen urte berean, 1972. urtean. Geroztik makina bat pasa dira guretik.

**- Ikasketak ere asko aldatu dira...**

Aldaketa ugari izan dira hezkuntza planen ondorioz. Hasieran 5 urteko ikasketak ziren eta momentu honetan, 2 urteko formazio zikloak dira. Maila ertainekoak eta goi mailakoak.

**- Irakasteaz gain ze zerbitzu eskaintzen ditu Armeria Eskolak?**

Langabetu eta enpresentzako ikastarok ematen ditugu, ikasleei enpresa sortzeko babesa eta sostengua eskaintzen diegu eta horrez gain, enprekin berrikuntzan garatzeko proiektuetan elkarlanean ere ari gara.

**- Hainbat enpresa sortu dira Armeria Eskolatik...**

300 enpresa inguru izango dira. Besteak beste, Gamesa, Panda Software, Tecnia, Forjas Areitio, Ormaetxea Tornilleria, Maser... Tekniker ere, Armeria Eskolan sortu zen.

**- Zer diozu krisiaz?**

Krisi garaietan aukera berriak sortzen dira. Armeria Eskola hasieran armagintzari lotuta hasi zen eta ostera 1920an mekanikoak ere baziren. Garai hartan krisiak jota geunden. Armak krisian ziren

eta orduan ere, bide berriak jorratu ziren. Orbeak, adibidez, armak egiten zituen eta tuboak egiten zekienez, bizikletak egiten hasi zen. Eskolak ikasketa berriak jarri zituen abian. Orain ere, auto elektrikoaren inguruan buru-belarri gabilta. Energia iturri berrien eta berriztagarrien aldeko apustua egin dugu. Inbertsio handia egongo da arlo hauetan etorkizunean. Ohiko sektoreei eutsi eta berriei atea ireki behar zaizkie. Subkontratazio asko daukagu gure bailaran, baina ez dugu gure produkturik. Beste batzuentzat gabilta lanean. Krisitik edo ez zara ateratzen edo beste egoera batera moldatuz ateratzen zara.

**- Enprekin oso harreman estua duzue?**

Gehiago nahiko genuke! Enpresa ere, Armeria Eskolako zuzendaritzan egotea nahiko nuke. Hasierako urteetan horrela zen.

**- Buzoaren orde, trajea jantzi nahi duen gizarte bizi gara...**

Hori beti gertatu da, baina profesionaltasuna ez dago lanpostuaren menpe. Pertsonen menpe dago hori. Aurrerantzean kualifikazio altuko lanak beharko dira. Kualifikazio baxua duenak erdi mailakoa edo maila nagusikoa beharko du. Dena den, hasierako baloreak berreskuratu behar direla uste dut. Gauzak ondo egiteko konpromisoa eta esfortzua. Armeria Eskolaren betiko lema hauxe izan da: lana ondo egiteko pasioa izatea. Irakasleok ere erantzukizun handia daukagu horretan. Maisu behar dugu izan eta ez irakasle.

Asier Ibaibarriaga

Eskerrik asko

Iñaki Alberdi eta

Fernando Sagastigutxiari.

**SANTOS ARANBURU**

(Mallabia, irakaslea):

*"35 urte daramatzat irakasle eta azken 12 zuzendaritzako kide gisa. 19 urterekin ikasketak bertan amaitu eta laguntzaile gisa hasi nintzen eta ondoren, oposaketak pasa eta plaza lortu nuen. Ikasketa buru ere izan nintzen eta gaur egun tailerreko maisu moduan nabil irakasle, kontrol numerikoa irakasten. Asko aldatu da urteetan kontua. Diziplina ere ezberdina da. Sasoi batean irakasleren bat pasillotik pasatzean, ikasleek agurtu egin behar izaten zuten. Lehen ikasketak 5 urtekoak ziren eta orain 2 urteko zikloak dira. Bailarentzat erreferentea izan da Armeria Eskola".*



**NEREA SOLOZABAL**

(Mallabia, ikasle ohia):

*"Nik produktu mekanikoen garapena ikasi nuen eta batxilerra ere han egin nuen, guztira 5 urte pasa nituen bertan. Momentu onak asko izan ziren eta berari esker, jende asko ezagutzeko aukera izan nuen. Nigandik aparte, Mallabiko ikasle gehiago ere baziren, 10 inguru egongo ginen taldean. Produktu mekanikoen ikasketak egin ostean, bi urte eta erdiz delinente bezala egon nintzen lanean eta ondoren Tekniker-en beka bat izan nuen. Armerian ikasitakoa baliogarria izan zen. Nire gelan ez ginen neska asko, 21 ikasle 7".*



**T** XALAPARTA ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

**EGANA**

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK  
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA  
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

**NATURHOUSE**  
NUTRICION Y DIETETICA

**"Adituak gara ondo elikatzen irakasten"**

AINARA IRIONDO ANSOLA  
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomata

Komentukua 1, behea  
943 17 63 72

**OINAK**

LEIRE MAYORA  
**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
© 943 17 47 44

Eskeerrik asko kilometroak eusten, korrika egiten edo bidu-ertzetan txaloak jotzen 17. Korrika posible egin duzuen guztioi.

Mil Esker Korrika laguntzaileroi!

**Kaltxango AEK Euskaltegia**

**KILOMETRO  
EROSLEAK**

**ERMUA**


- Alboka musika Eskola
- Artarra Mendi Taldea
- Bertso eskola
- Euskal Birusa
- Anaitasuna ikastolako guraso Elkarte
- Txindurri txistu eta dantza taldea
- Emakumeen asanblada
- Emakumeen sustapenerako zentruaren ikasle ohiak
- Infreñu Taberna
- Ezker Abertzalea
- Monroeko langileak
- PNV/EAJ
- Anaitasuna LH, Ongarai LH eta BHI, Esolabari eta San Lorenzo ikastetxeetako irakasleak
- Elkarre gastronomikoak (Txalaparta, Malengo, Arari, Erretea eta Urdinak).
- Berbalagunkideak
- ELA Monroe
- Ermuko Udala
- Ermuko PSE

**MALLABIA**

- Mallabiko Udala
- Mallabiko Eskola
- Eskolako Guraso Elkarte
- Herriko taberna
- Jasokunde abesbatza
- Mendibil abesbatza
- Futbito taldea
- Orraitio euskara Elkarte
- Txondor herri kirol taldea
- Mecanicas Mallabi, Depresa, Mugape eta USAko langileak



**Argazkiak: Valentin Mugarza**



**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURITASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2  
Tel. 943 17 66 34  
Tel. mugikorra 630 01 13 41  
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60  
48260 ERMUA (Bizkaia)

Zure publizitatea...

**drogeteniturri**  
aldizkarian



943179350 / 688 632876  
Erdikokale 2, 1 - Elexoste  
drogeten@gmail.com



**NEREA IÑIGUEZ  
HORTZ KLINIKA**



San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com

# Korrika txikia



**Quetzal**  
 Arropa, bitxiak,  
 opariak... zerb ez!  
 Goienkale 9 · ERMUA  
 943170065

*Euskara eta euskaltegia  
 egin biak zureak*

**UDAL** EUSKALTEGIA

Teresa Murga, 2. solairua  
 Tel. 943 17 09 25





Zubiaurre 14  
 Telef. 943 17 28 88  
 48260 ERMUA

**EGUZKI LORE**

**DQ**  
 Mouth

**solozabal**  
 tabakoak

torrekua 1  
 tel./fax: 943 17 07 33





**DULCE  
 BEBÉ  
 PEQUE'S**

0 eta 4 urte  
 bitarteko  
 umeentzako  
 moda eta  
 puerikultura

Zubiaurre 30 · ERMUA  
 943 170 005



## HERRI URRATSERA JOATEKO AUTOBUSA IPINIKO DU EUSKAL BIRUSAK

Maiatzaren 8an aurtengo Herri Urrats egingo da eta euskararen aldeko ekimen honi babesa eman nahian, autobusa jarriko du Euskal Birusak. 8.30ean Agirre Kirolak-etik irtengo da eta 20.00etan bueltatuko da. Izena eman nahi duenak 943179350 edo 688632874 telefonora deitu, euskalbirusa@euskalnet.net helbidera mezua idatzi edo Elexostera gerturatu daiteke. (Helduak, 10€; umeak, 8€).

## DEFENTSA PERTSONALA ETA MAKROBIOTIKA, BERBALAGUNEN

Maiatzaren 10, 17 eta 24an defentsa pertsonaleko ikastaroa egingo da Lobianon, 19.00etan. Emakumeek, eraso baten aurrean, erabil ditzaketen babes teknika ezberdinen multzoa ikasteko aukera emango du ikastaroak. Makrobiotikakoa, berriz, zehaztu barik dago oraindik. Informazio gehiago: ermua\_berba@aek.org helbidea edo 639414205 zenbakian.

## 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' martxan da

'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' egitasmoaren abantailak erabili ahalko ditugu ermuarrok, apirilaren 23tik uztailearen 23ra bitartean, Euskal Birusa, Udal Liburutegia eta Xiripot eta Maribel liburu denden elkarlanari esker. Egitasmo honen funtzionamendua erraza da: Irakurleak euskarazko edozein liburu hartu ahal izango du liburutegitik eta bertako maileru zerbitzua erabilita etxera eraman, han goxo-goxo irakurtzeko. Liburua itzultitakoan, hiru galdera erraz dituen fitxatxoa bete eta erosketa-txekea emango diote liburutegian bertan. Horrekin, Xiripot edo Maribelenean, euskarazko beste edozein libururen prezioaren %25 ordaindu ahalko du, eta irakurlea Euskal Birusaren bazkidea bada %50. Azkenik, erositako liburua lagun bati oparitzea proposatzen du egitasmoak, gustuko gauzak konpartitzeak dakarren plazerraz ere gozatzeko. Gozamina bider bi. Horrez gain, Udal Liburutegiak zozketa bat egingo du egitasmoa martxan egongo den hilabete bakoitzean, hau da, maiatza, ekaina eta uztailean, maileguan hartutako liburua itzultitakoan irakurle-fitxatxoa beteko dutenen artean. 30€ko balioa izango duen erosketa-txeke bat eta liburu sorta bat izango dira zozketaren sariak. Irakurri, gozatu eta gozarazi. Erabili!

## San Martin azokako laguntzaileen txangoa, 21ean...

Urtero bezala, San Martin azokaren antolaketa laguntzen duten lagun guztiei eskerrak emateko, txangoa antolatu du Euskal Birusak. Irteera honetan Ekaineko kobak eta Zestoa ikusi eta Aizarnan bazkalduko da. Izena eman nahi dutenek Elexostera joan beharko dute (Erdikokale 2), 943179350 / 688632874 telefonoetara deitu edo euskalbirusa@euskalnet.net helbidera mezua bidali. Euskal Birusak autobusa ipiniko du eta nork bere bazkaria ordainduko du (20 euro inguru). Animatu!

## ... eta maiatzaren 21ean baita ere, V. Vertigo Rock

Maiatzaren 20an aurtengo Vertigo Rock jaialdiaren aurkezpena egingo da Zappa tabernan. Bertan, herriko hainbat musikariz gau horretarako soilik osatutako 'Beti txarto' taldeak abesti ezagunen bertsioak joko ditu. Vertigo Rock hurrengo egunean egingo da, zapatuan. 'Eraite' (Iruña), 'Erantzun' (Zarautz) eta 'Dark Aladas' (Santander) taldeek kalean joko dute 17.45etik aurrera; 'Red Blaze' (Ermua), 'PAM' (Ermua), 'Segismundo Toxicomano' (Gasteiz) eta 'Ze Esatek!' taldeek, berriz, plazan joko dute 21.45etik aurrera, dohainik. Kontzertuez gain, txosna egongo da, hala nola musika-argazkilaritza lehiaketa Eskilarapekon eta graffiti erakusketa.

## Uni Eibar-Ermuko ikasleak Finlandian

Apirilaren 1etik 10era bitartean Finlandian egon dira Uni Eibar-Ermuko batxilergoko 30 ikasle, 15 ermuar tartean, eta bi irakasle. Bertako familiekin egoteaz gain, beste hainbat gauza egiteko denbora izan zuten: "Klaseetan lagundu, bulying-ari buruzko bideoak grabatu, saunara joan, laku izoztuan bainua hartu, egurraren museora bisita egin eta futbito partida jokatu: euskaldunok 6-5 irabazi genuen!", kontatu digu Uni Eibar-Ermuko Aitor Zumelagak.





- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia muskala

**MUSIKA ESKOLA**

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com




Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56
Diputazio, 5
ERMUA

**Manuel Etxebarria, Etxedreams koltxoi-denda:**

# “Koltxoiak erabateko garrantzia du osasunean”

**D**uela 28 urte, Manuel Etxebarria zornotzarrak bere lehen koltxoi-denda zabaldu zuen Bilbon. Gaur egun 3 denda ditu (Ermua, Eibar eta Durangon), eta duela egun batzuk erakusketa berria zabaldu du Ermuan, Zubiaurre 32an (Renault zaharrean).

**- Izelaietako denda 1995ean zabaldu zenuen. Zer dela eta leku aldaketak?**

Izelaietako obrak egin aurretik, leku ezin hobean geunden. Egunero ehunka pertsonak zeharkatzen zuten kalea trenera joateko. Obrak egin eta gero, kalea hutsik geratu da eta salmentek behera egin dute.

**- Zenbat metro karratu ditu denda berriak?**

Erakusketa-gelak 100m<sup>2</sup> ditu eta gainera 100m<sup>2</sup>ko

biltegia du: Izelaietako dendak baino hiru bider gehiago. Leku paregabea da, ondo kokatuta dago eta dena ondo joatea espero dugu. Hainbat urte daramagu Ermuan eta bezeroak ondo ezagutzen gaitu.

**- Zer eskaintzen dio Etxedreamsek bezeroari?**

Konfiantza, esperientzia eta lehen mailako produktuak. Gure izenean frankizia dugu eta guretzat lan egiten duen fabrika daukagu, mailarik goreneko produktuak eskainiz. Gure koltxoiek gure izena daramate eta guk aukeratutakoak dira.

**- Negozio familiarra da?**

Bai, ni bakarrik hasi nintzen honetan, baina orain semearekin batera kudeatzen ditut dendak. Gainera, 3 langile ere baditugu.

**- Nola aldatu da koltxogintza azken urteetan?**



Lehen malgukizko koltxoiak saltzen ziren eta orain biskoe-lastikoak saltzen dira batez ere, edo bi horien arteko konbinazioa. Sojaren deribatuak dituzten aparretan oinarritutako koltxoiak dira. Garai batean latexeko koltxoiak ere saltzen ziren, baina gaur egun zaharkituta daude.

**- Pertsonaren atsedendian, zer nolako garrantzia du koltxoiak eta almoadak?**

Erabatekoa, baina ez bakarrik atsedendian, osasunean ere eragin handia izan dezake koltxoiak. Zapata eta betaurrekoak beste garrantzi duela esango nuke.

## Denda berriak 200m<sup>2</sup> ditu, erakusketa eta biltegia barne



ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegiarako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

**Aldapa 1** **943 17 60 52**

GREDOS

taberna

*Pintxoak, otartekoak...  
eta hostalarien umore ona*

**Zubiaurre 20** **94317 26 65**

ARTARRAI

OPARI DENDA



Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19

**ERMUA**

OUTUMURO

Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak  
Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**

*Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu*

# ROBERTO MONTOTO 'MONTI'

## - Zer dela eta Monti ezizena?

Gure abizena berez Montoto da, baina informazioa bilatuz eta paperak arakatzuz, antzina eta latinez Montis idazten zela enteratu ginen. Belarrirako, Monti Montoto baino leunagoa da, baina oraindik ere jende askorentzat Montoto naiz.

## - Zenbat denbora daramazu barraren atzean?

Ikasten ari nintzenezan oporretan egiten nuen lana tabernan, baina duela 7 urte DQ tabernan ugazaba gisa aritzea erabaki nuen.

## - Ez omen dira garai onak Ermuko tabernentzat. Aspaldian etengabe entzuten da krisiak jota daudela.

Argi dago jendearen ohiturak eta giroa ere aldatu egin direla azken urteetan Ermuan. Ni betidanik izan naiz tabernetan ibiltzekoa. Orain eta batez ere neguko gauetan jende gutxi dabil tabernetan. Txikiteoa ere galdu da, koardila bakar batzuk geratzen dira egunero poteoan ibiltzen direnak eta gazteek ez dugu lekuko hori hartu. Gainera, tabakoaren aurkako legeak eta krisi ekonomiko orokorrak ez dute batere lagundu.

## - Tabernak haurtzaindegi bihurtzen ari dira?

Gurasoak umeekin betidanik etorri izan dira tabernara eta ez dut diferentzia handirik sumatu. Ni erretzailea naiz eta epe luzera nire osasunak eskertuko du, batez ere jaietan eta txanda luzeak egin behar ditugunean barran.

## - Barra atzean egoteko



**Ermuan jaio zen duela 31 urte. Bi anaien artean gazteena da. Tabernan oso gazte zela hasi lanean eta tartean arotz lanak ere egin ditu. Azken 7 urteetan DQ tabernako ugazaba da.**

## pazientzia handia behar omen da. Zer moduz zu?

Nahikoa pazientzia dudala esango nuke.

## - Zer ikasi duzu urte hauetan barraren atzean egotean?

Jendea entzuten, gauzak lasaiago hartzen. Duela 7 urte ez nuen uste horrenbeste denbora iraungo nuenik tabernan, baina konturatu naiz jendearekin harreman zuzena izateak bete egiten nauela.

## - Tabernaren alderdirik txarrena?

Zubi-lana dela, lan hobea goa lortu arte egiten dena normalean. Horregatik langileen joan-etorria ohikoa iza-

ten da. Ni ezin naiz kexatu, beti izan dudalako jendea lanean denbora dezente.

## - Alderik onena?

Jendearekin hartu emana eta batez ere langileen arteko harreman ona.

## - Ugazaba edo langilea izatearen artean alde handia dago?

Bai. Erantzukizun handiagoa dut ugazaba naizenetik, ezin dut nigan soilik pentsatu, beste pertsona batzuk daude nirekin lanean.

## - Arotz moduan aritu zinen. Orain arotz lanak hobby moduan egiten dituzu?

6 urtez aritu nintzen arotz

moduan. Orain lagun edo familiakoek eskatuta egiten ditut lanak. Gure etxea dena da egurrezkoa eta arotz lanak guk egin ditugu.

## - Barraren kanpo aldean zaudenean, nolako bezeroa zara?

Denbora luzez irten gabe egon banaiz, arriskutsua izan naiteke (barreak). Oro har tabernetako detaileei erreparatzen diet. Era berean, ez dut arazorik barran sartu eta garagardo upela aldatzen laguntzeko.

## - Poteatzeko tartea hartzen duzunean zer edaten duzu?

Garagardoa.

## - Gauean ibiltzen zarenean?

Dena gustatzen zait. Kafearen ostean likorea, konbinatu ezberdinak... Bezero guztiak horrelakoak balira, ez litzateke krisirik izango! (barreak).

## - Zerk haserretzen zaitu?

Futbolagatik jendea haserre ikusteak. Egia esan, futbola ez zait gustatzen.

## - Zerk pozten dizu eguna?

Nire proiektuak aurrera ateratzeak. Duela bi urte pintura eskolara joatean naiz. Ez ditut koadro asko egin, baina horrek betetzen nau.

## - Aisialdian...

Bidaia, hemendik irten.

## - Bidaia bat nora?

Costa Ricara, esaterako.

## - Egunero kale egin gabe egiten duzun hori?

Dutxatu eta Don Celes begiratu, gero bezero koadrila batekin komentatzeko.

## - Biziorik?

Denak (barreak).

Alazne Aiestaran

**ILEAPAINDEGIA**  
**Izaskun**  
 Goienkale, 9 (Plaza San Martín)  
 48260 Ermua Bizkaia  
 Tel. 943.17 66 90  
**ILEAPAINDEGIA**

**Yoga eskola**  
**Sanatana Dharma**  
 \* Osteopatia.  
 \* Bertebrologia  
 \* Anginak sendatzeko masajea...  
 San Roke 24, behea · 943748593  
 685722131 (Idoia) 639652729 (Lourdes)

**URDAITEGIA - CHARCUTERIA**  
**MAYTE**  
 Plaza del Mercado  
 Tel. 17 24 12  
**ERMUA**



## Andoni Aldape pilotari mallabitarra San Franciscon izan da

**O**tsailaren 16a eta 26a bitartean, AEB-eta-ko San Francisco hirian egon zen Andoni Aldape pilotari mallabitarra. Egun, Mallabiko Biharko Izarrak txapelketan dabil buru-belarri.

**- Zer dela eta izan zara San Franciscon?**

Bertako Euskal Etxeak 29 urte betetzen ditu aurten eta hemengo lau pilotariei gonbitea luzatu ziguten: Antzuolako Aitor Mendizabali, Zarata-moko Ander Elezkanori, Iñigo Irureta beasaindarrari eta neuri.

**- Kanpoan jokatzeko duzun lehen aldia izan da. Gustura ibili zara?**

Bai, oso ondo. Esperientzia polita izan da.

**- Zenbat partida jokatu zenituzten bertan?**

Bi partida jokatu genituen gure artean: aurrelari bakoitza atzelari birekin. Erakustaldia egitea zen helburua eta oso ondo pasatu genuen.

**- Biharko Izarrak txapelketan ere parte hartzen ari zara, ezta?**

Bai, eta adina dela-eta, hau izango da nire azken urtea.

**- Txapelketa otsailean hasi zen eta ekainean bukatuko da, baina zer moduzko emaitzak izan dituzu momentuz?**

Egia esan, niretzat ez doa oso ondo. Bi partida galdu eta bat irabazi dut.

**- Aurrera begira zein erronka dituzu?**

Momentu honetan herri arteko eta Mallabiko txapelketetan nabil. Añorgan ere jokatuko dugu eta uda partean hainbat herritako jaietan jokatuko dut.

## 120 kirolari baino gehiago Ermuko II duatloian



**A**pirilaren 3an Ermuko II. Duatloia egin zen, Ostots Triatloi Kirol Klubak antolatuta. Guztira 147 kirolarik hartu zuten parte, horien artean 15 neskek. *“Lasterketaren bigarren urtea izateko, parte hartze kopuru altua dela esan daiteke”,* azpimarratu dute antolatzaileek.

Hego eta Ipar Euskal Herriak etorritako kirolariak bildu ziren eta gizonen sailkapenean, ‘Deporama Triatlon Soriano’ko Javier Garcia Velascok lortu zuen lehen postua. Bigarre-na, berriz, ‘Team Mermillod Triathlon’eko Ouilleres Gwenaël izan zen. Nesken sailkapenean, ‘Tolosaldeko T.T.’ko Maid Gaztañaga Dorransorok lortu zuen garai-pena eta ‘Garraitz Kirol

Talde’ko Itsaso Leunda Goñi bigarren izan zen.

### Bilakaera

Antolaketan Ostots taldeko 14 kirolarik hartu zuten parte, baina eguneko bertan 85 boluntarioren laguntza izan zuten. *“Antolaketari buruzko iritzi onak jaso genituen, nahiz eta gauza batzuk hobetu behar ditugun”,* diote.

Iaztik ona ere, zenbait gauza aldatu dute, besteak beste data, ia hilabete aurreratu baitute aurtengo edizioa (iaz maiatzaren 7an egin zen), duatloien denboraldian sartu ahal izateko. Ibilbidean ere aldaketak egin dituzte eta antolatzaileek diotenez, kirolariak eskertu dute. Boxeak San Pe-laio parketik plazara aldatu dituzte.

Dorleta Vidal




**CITROËN  
AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta 3 L8 pab.  
Tel. eta Faxa. 943 17 04 14



**PUB YOMY**

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean



Santiago Plaza 3, behea · ERMUA  
943 10 82 42

# Nuklearrik? Bueno, urrunekuek badiez...

*Haritz Majora*

Gueñesetik Itsasora eraiki nahi daben goi-tentsioko sarea dala ta zalapartie dago Mallabixen. Izan be, elektrizidadearen autopistioi geure herritik pasarazteko asmue dauko Red Electrica Españolak (REE): Berrizetik sartuko da Zengoiterra, gero Aitxu gainetik pasau eta Elgetarantz jotzeko. Urrutiko enpresaburu ahalguztidunek erabaki dute, txokorra ahoan dutela, gure herrien etorkizuna. Interes generalaren izenean, noski.

Goi-tentsioko sareek eremu elektro-magnetiko indartsuak sortzen dituztela jakinekkoa da, eta eremuok danak onak eztirala bebai. REEkuek lasai esango dabe eremu elektromagnetikuek kan-


tzerra sortzen dabenik eztala frogatu, ta seguruenik eztabe gezurrik esango. Ezta frogaute hori frogatzie oso gatxa dalako, hainbeste dira kantzerra sortu ahal daben faktoriek. Goi-tentsioko linea, antena erraldoi eta tankerakuen inguruen bizi dan jendiak, ordia, buruko minak, lo ein ezina eta bestelako arazuak aitortzen dauz. Araudiak dino goi-tentsinoko dorreak (Mallabiko lurretan 70 metroko bi dorre aurreikusten dira) etxeetatik 500 metrora egon bihar dirala, gitxienez; baina Mallabiko kasuen, behintzat, hori baino hurrago dagoz: 40 mallabitar dorreatatik 300 metrora biziko dira. Proiektua atzera botatzeko nahikoa arrazoi izan beharko leuke.

Defendatzeko edo, REEk dino AHTari jaten emoteko ezinbestekua dala (interes generala, ale-

gia); baina Eguzkiko Alberto Friasek dino ezetz, trenarentzako badagoela energia nahikoa eta elektrizidadearen espekulatzailak gehiago aberasteko tresna besterik ez dela sare berria.

Metro koadroko azpiegitura gehien daukan lurraldea da EAE Europan, desarrollismoaren aztarnak latzak diez gure lur malkartsuen eta halan da be, bide bereetik jarraitzen dogu. Lantzean behin, herritar taldeak proiektu suntsitzaile eta zentzugabeen kontra antolatzen dira, baina normalean kaltetu zuzenak dira ia bakarrik borrokatzen dutenak. Besteok lasai asko bizi gara desarrollismo horren barruan, eroso kaka inoren zelaian dagoen bitartean. Ikusi, erosi, bota, ikusi, erosi, bota... Oin geuri tokau jaku zentzubako (beste) azpiegitura bat gure herrixan sufridu beharra ta danak aztoratu gara. Norberaren paisaia, ingurumena, osasuna mehatxatuta ikustea eraginkorra da, beharrezkotzat saltzen diguten guztia benetan hala dan pentsatzen has-teko.

**Desarrollismoaren aztarnak  
latzak dira gure lur malkartsuen**



**IKASTOLA**  
38 urte Ermua  
euskalduntzen



**TXINDURRI**  
**TALDEA**  
**Tokian**  
**tokiko**




**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es

**PRO**



- ARRAINDEGIA  
- ITSASKIAK  
- ARRAIN FRESKOAK ETA  
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA**  
**OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
" 17 24 33 (etxea)  
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
ERMUA



Apirilaren 7an  
Zorionak June zure urtebetetzean familia osoaren partez.



Apirilaren 23an  
Zorionak Aizpea zure lehen urtebetetzean!! Aita, ama eta aitita-amamen partez, patxo handi bat!! Muuuu!



Apirilaren 13an  
Zorionak zure 9. urtebetetzean zure guraso eta arrebaren partez. Ondo pasa zure egunean, txirrindulari!



Apirilaren 28an  
Zorionak Markel zure 4. urtebetetzean eta musu handi bat Irati, Julene eta Ibairen partez!



Maiatzaren 6an  
Zorionak aita etxekoan partez! Bazkari on batekin ospatu beharko dugu, ezta?



Apirilaren 26an  
Zorionak Oihan zure 2. urtebetetzean gurasoen partez. Asko maite zaitugu!



Maiatzaren 21ean  
Zorionak maitia!! Ondo pasa zure eguna aita, ama eta Mikelen partez.



Hileko azken larunbatean Ermuan Kantuan kalejiran parte hartzen duten lagunetako batzuek bazkaria egin zuten martxoaren 26an. Guztira, 24 lagun bildu ziren Leku Eder elkartearen. Ederto jan, hobetu abestu... Kantuzaleentzako zer hoberik kantatzeko aukera izatea baino!

Bidali zure zorion-agurra edo iragarkia [drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com) helbidera edo Elexostera ekarri (Erdikokale 2, 1.). Hurrengo zenbakirako azken eguna:  
**MAIATZAREN 16a**

**MENDIOLA**  
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19  
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA  
(Bizkaia)

**ARRIETA CORDEVI**

Elektratresnak,  
telebistak, bideoak,  
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

**IZOTZ**  
IZOZTUAK

ERMUA  
Merkatua  
54-55 postuak  
943174101

ARRASATE  
Merkatua  
943770598

**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Tresneria
- \* Brikolaia
- \* Rielak
- \* Giltzak
- \* Zerrailgintza
- \* Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**Ardo banatzailea:**

Riedel	Hugel&Fills
Avgvstvs	Anima Negra
Clos Mogador	Irache
Yllera	Cillar de Silos
Cantosán	Vriego
Luis Cañas	Laurona

**DISTRIBUCIONES ARRAL**  
TELEFONOA: 943 17 60 75

# MALLABIA 1986

Argazki honetan Mallabiko pilotariak agertzen dira, Bermeoko pilotari batzuekin batera.

Zutik: Julian Albino Pradera, Begoñes (bermeotarra), Txo de Bermeo (bermeotarra), Ismael Pradera, Jose Alberto Ferreiro, German Telleria, Unai Martin eta bermeoko beste jokalaria bat.

Behean: Agustin Solozabal, Mikel Solozabal, Aitor Castañeda, Suso Rodriguez eta Bermeoko beste jokalaria bat.



# ERMUA 1961



Areitioko erromeria eguna, maiatzaren 1ean. Egunpasa joandako lagun aldra hontan ezkerretik eskumara dauden andrazkoak ondokoak dira: tente Esther Domaika eta Lourdes Egia; belauniko Mari Larraina, Jesusa Larraina, Mertxe Egaña, Dolores Egia eta Felipa Etxebarria. Umeak dira: M<sup>a</sup> Isabel Aretio, Begoña Zendoia, Nieves Egia, Amaia Zamakola, Elisabeth Ajuriagerra, Felix Egia, Pilar Zendoia eta M<sup>a</sup> Jesus Aretio. Etzanda, M<sup>a</sup> Asun Agirregomezkorta.

\* Zure argazki zaharrak Drogeteniturrin kaleratzea nahi baduzu, ekarri Elexostera (Erdikokale 2, 1.) edo bidali posta elektronikoz drogeten@gmail.com helbidera.

**MUGA** **KILOAK**

San Pelaio 4A behea  
Telefonoa: 17 64 77  
ERMUA

Ferreteria / Burdindegia

**ANBOTO**

- \* Burdindegia
- \* Tresneria
- \* Sarrailagintza
- \* Giltzak / Aginte automatikoak
- \* Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- \* Opari artikulua

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer\_anboto@hotmail.com

**san pelayo**  
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1<sup>o</sup>  
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

**Martxoaren 7an 110 kilometro orduko lege berria indarrean sartu zen eta, honen arabera, abiadura muga murriztu da 120 km/h-tik 110 km/h-ra autobideetan eta autobietan. Industria Ministerioak dioenez, lege honek 1.400 milioi euroko aurrezpena ekarriko du eta Espainiako Trafiko Zuzendaritza Nagusiak emandako datuen arabera, 110 km/h-ko neurria indarrean sartu denetik gehiegizko abiaduran joategatik ipinitako isunak erdira jaitsi dira. Zer iruditzen zaizu lege berri hau?**

Tontakeria bat dela uste dut. Autopistan hiru karril izanik 110 kilometro orduko abiadurara joateak ez du zentzurik. Politikariek haien soldatak jaitziko balituzte askoz gehiago aurreztuko litzateke.



**Mikel Goitandia, 20 urte**



Ez zait ondo iruditzen. Deseroso sentitzen naiz 110 kilometro orduko abiadurara gidatzean. Lege berri horren helburua zera da, isunekin diru gehiago lortzea eta ez energia aurrezte.

**Jon Ruiz, 19 urte**

Gaizki iruditzen zait. Gidatzeko baimenik ez badut ere, kotxean noanean astiroegi doan sentsazioa dut eta beranduago heltzen naiz tokietara. Gainera lege horrekin ez dut uste gehiegi aurreztuko dugunik, isun gehiago ordaindu behar izango ditugulako.



**Alazne Alonso, 19 urte**



Ekonomia txarto dagoela denok dakigu, eta nire ustez lege berri hau kontsumoa jaisteko baino gehiago radarren bidez diru gehiago biltzeko asmatu dute. Ez naiz kotxean inguruko aditua, baina pentsatzen dut ez dela energia askorik aurreztuko. Ez naiz gidaria, ondorioz legeak zuzenean ez du nigan eraginik izan.

**Pilar Santacilia, 74 urte**

Ez zait bidezkoa iruditzen eta gainera kontsumoa handitu egiten dela uste dut. Gidari bezala eragin handia izan du niregan lege berri horrek, izan ere, ohituta bainengoen 120 kilometro orduko abiadurara eta orain motelago joateak aspertu egiten nau.



**Beñat Aranburu, 19 urte**



Lotsagabekeria dela uste dut. Jakin nahi izango nuke zenbat diru bota duten seinale guztiak aldatzen. Gidari bezala eragina izan du niregan aspertu egiten bainaiz eta hori abiadura handian joatea bezain arriskutsua izan daitekeela iruditzen zait.

**Nekane Estrella, 19 urte**

Janire Daaira eta Irune Martínez

**Bar London**  
Komentukua 2, Ermua  
Tlf: 943173312

**optika itze**

- ✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
- ✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

**MUSIKA**

**Hilak 7:**  
Kalejira: Irlutxa txaranga (15.urteurrena).  
13.30 eta 19.00etan.

**Hilak 13:**  
Rulo y la contrabanda.  
22.15ean. Antzokian.  
Sarrera: 12€

**Hilak 14:**  
Rosa Sánchez.  
17.00etan.  
Eskiralapecon.

**Hilak 14:**  
Mariachi Guerrilla.  
23.00etan. Orbe  
Kardinalaren plazan.

**Hilak 21:**  
Vértigo Rock:  
Segismundo  
Toxicómano, P.A.M.,  
Ze esatekl, Red Blaze,  
Dark Aladas.  
17.45etatikaurrera.  
Plazan eta inguruko  
kaleetan.

**Hilak 28:**  
Ermuan Kantuan kalejira,  
Alboka Musika Eskolako  
trikiitlariekin. 12.30ean.  
Orbe Kardinalaren plaza-  
zatik.

**Hilak 28:**  
Flor de tomillo, Alma de  
Andalucía eta Zumake.  
18.30ean. Orbe  
Kardinalaren plazan.

**ANTZERKIA**

**Hilak 6:**  
'Trampa mortal'. Paco  
Valladares, María  
Garralón. 22.15ean.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera: 12€

**Hilak 20:**  
'Locas', Teatro A  
Cuestas taldearen.  
22.15ean. Lobiano  
Kultur Gunean.  
Sarrera: 5€

**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 2tik 8ra:**  
Mexikori buruzko  
erakusketa: argazkiak,  
testuak... 'La otra mirada'.

**Hilaren 14tik 30era:**  
Eskulturak: Juanjo  
Gurrea.  
Lanegunetan  
18.00etatik  
20.00etara.  
Asteburuetan  
12.00etatik 14.00etara  
eta 18.00etatik  
20.00etara. Lobianon.

**ZINEA**  
(Zehaztu barik)



**BESTELAKOAK**

**Hilak 2:**  
Irakurketa kluba: 'Libreta  
horiko poemak', Pako  
Aristi. 19.30ean. Udal  
Liburutegian.

**Hilaren 2tik 8ra:**  
Galiziako Letrei buruzko  
jardunaldiak. Galiziako  
zentruan eta Orbe  
Kardinalaren plazan.

**Hilak 11:**  
Dokumentala: '¡Viva  
México!'. 20.30ean.  
Lobianon. Dohainik.

**Hilaren 12tik 15era:**  
Euskal Liburu eta Disko  
azoka. Goizez eta arra-  
tsaldez. Plazan.

**Hilak 15:**  
Bertso saioa: Igor  
Elortza, Jon Maia eta  
Uxue Alberdi.  
19.30ean. Plazan.

**Hilaren 16tik 22ra:**  
Andaluziako Zentruaren  
kultur astea. Andaluziako  
zentroan eta San Pelaio  
plazan.

**Hilaren 23tik 29ra:**  
Gaztela-La Mantxako  
Kultur astea. Gaztela-La  
Mantxako zentruan eta  
plazan.

Patxi López

**Harategia**

**M. LAZKANO**

**BERTOKO OKELAK**  
*Geure Baserrian*  
*Hazitako Txalak*  
GEUK GIZENDUTAKO  
ABELTZANTZA  
Merkatua, 36-37 zbk.k  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**OPTICA**  
**J. CASADO**

Lenteak  
Audifonoak  
Graduatutako Antiajuak  
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2  
Tfnoa. 17 33 57  
**ERMUA**

**MIGUEL**  
**Harategia**

**TXORIZOAK**  
**ODOLOSTEAK**

Probaleku, 3  
☎ 17 05 63  
**ERMUA**  
(Bizkaia)

hamburguesería  
**TITANIK**

*Pintxo dastaketa*  
*poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

ARETO  
NAGUSIAN  
*Etorri aurretik  
izena eman!*

902 110 436

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

# ATE IREKIAK

## Goi Eskola Politeknikoa

**ARRASATE MAIATZAK 7** larunbata, 10:30

**MAIATZAK 19** osteguna, 17:30 *unibertsitate masterrak*

## Enpresagintza Fakultatea

**OÑATI MAIATZAK 21** larunbata, 11:00

**IRUN MAIATZAK 28** larunbata, 11:00

## Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

**ESKORIATZA MAIATZAK 14**  
larunbata, 11:00



# LA SALLE AZITAIN IKASTETXEA

2011-2012 ikasturterako eskaintza

**BATXILERGOAK (A eta D)**

**ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA / GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK**

**Badugu  
ikasteko  
leku bat  
zuretzat!**

**La Salle**  
Eibar

**Q**  
Euskadi  
2009

943 121 698

**maiazaren  
2tik 11ra**

# ETXEDREAMS-ek koltxoi-denda berria du Zubiaurre 32an!!



200 m<sup>2</sup>tik gorako  
erakusketa-gela



20 urtetik  
gorako esperientzia

## Atsedena diaz

hitz egingo dugu?

Zubiaurre 32 (Renault zaharrear)  
Ermua - 943 177 041

etxedreams  
COLCHONERIAS

